



ZESTOAKO UDALA

AKTA

2019ko azaroaren 28an Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta gainontzeko hamar korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dituzte:

1.- 2019ko urriaren 30ean burututako saioaren akta onartzen da aho batez._

2.- Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitateko Kontuen Batzorde berezian parte hartzeko ordezkariaren izendapena.

Alkateak adierazi du, Urola Erdiko Mankomunitateak Kontuen Batzorde Berezia osatu duela eta partaide den herri bakoitzak ordezkari izendatu behar duela.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideen aldeko aho bateko botoekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehena.- Urola Erdiko Mankomunitateko Kontuan Batzorde Berezian, Zestoako Udalaren ordezkaria alkatea izatea.

Bigarrena.- Erabakia Urola Erdiko Mankomunitateari jakinaraztea.

3.-Zestoako Udalaren atxikimendua Gaztematikari, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen sustapenerako erakundearteko sarea.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideen aldeko aho bateko botoekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehena.- Zestoako Udala atxikitzea GAZTEMATIKARI, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako erakundearteko Sarea arautzen duen Dekretuko 12. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Bigarrena.- Atxikimendu honen berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Hirugarrena.- Gipuzkoako lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari atxikitzeak bereganatu eta eguneratu egiten ditu Zestoako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2006ko azaroaren 9an, sinatutako hitzarmenetik eratorritako konpromiso eta erabakiak, batez ere, Gazteria Dinamizatzailearen kontratazioaren iraupenari dagokionez.

4.- Adierazpen proposamena Boliviako estatu kolpearen aurrean.

"Azaroaren 10ean, Boliviako Estatu Plurinazionalako Presidente Evo Moralesek dimisioa aurkeztu zuen, poliziek eta militarrek behartuta. Dimisioa aurkeztu baino lehen, Morales presidentearen, haren gobernuko kideen eta Boliviako beste hainbat hautetsiren senideen kontrako erasoak gertatu ziren.



ZESTOAKO UDALA

Estatu kolpearen ondorioz, egoera benetan larria dela eta konfrontazio zibilerako arrisku handia dagoela nabarmendu nahi dugu. Izan ere, estatu kolpea bultzatu duten indarrak errepresioarekin oldartu dira Moralesen alde antolatutako herritarren aurka. Horrez gain, nabarmendu behar da, aurreko hilabetean izandako hauteskundeetan, Moralesek botoen %46 lortu zituela eta hauteskunde horiek errepikatzeko prestutasuna adierazi duela.

Egoera horren aurrean, Zestoako Udalak:

- *Gogor salatzen du Boliviako estatu kolpea.*
- *Dei egiten die Moralesen kontra altxatu direnei, eskubide zibil eta politikoak errespetatzeko eta gatazka negoziatio eta akordioaren bidez konpontzeko. Baita estatu kolpea bultzatu duten kanpoko eragileei ere, injerentzia gelditzeko eta Boliviaren burujabetza errespetatzeko.*
- *Babesa adierazten die Morales presidenteari, zein El Alton eta Bolivia osoan kolpearen kontra mobilizatu diren herritarrei.*
- *Zestoako herritarrei dei egiten die Boliviako estatu kolpeari aurre egiteko antolatzen diren mobilizazioetan parte har dezaten."*

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideetatik aldeko sei botoekin eta bost abstentziorekin Boliviako estatu kolpearen aurrean irakurritako adierazpena onartzea erabaki du.

5.- Azaroak 25, Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna. Adierazpen instituzionala.

"PROPOSAMENA:

1.- Zestoako Udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.

2.- Zestoako Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertze konpromisoa hartzeko.

3.- Zestoako Udal honek herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu eta dagokion lurralde mailan, indarkeria matxistaren kontrako zerbitzu-sarearen funtzionamendu egokia, elkarlana eta koordinazioa bultzatuko du, beti ere, kontuan hartuz adin txikikoak eta biktimen seme-alabak.

4.- Zestoako Udal honek, neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jabekuntza jarduerak abiatuko ditu, besteak beste ondorengo gaiak jorratu ahal izateko modu iraunkorrean: autodefentsa feminista, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab.



ZESTOAKO UDALA

5.- Zestoako Udal honek, nerabeei eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio eta formazio jarduera iraunkorrak abiatuko ditu emakume eta gizonen arteko harreman parekideak sustatzeko xedez, zehazki: hezkuntza sexu-afektiboa lantzeko, indarkeria matxisten askotariko adierazpenak desnaturalizatzeko, baiezeko onespina lantzeko, maskulinitate ereduak lantzeko, etab.

6.- Zestoako Udal honek, indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko jarduera iraunkorrak martxan jarriko ditu besteren artean, omenaldiak, zineforumak, bisibilizazio ekimenak, kalte-ordainketak, akonpainamendu soziala, etab. Jasoz.

7.- Erakunde honetatik, hau da, Zestoako Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitze bide eta tresna nagusia den heinean.

8.- Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.”

Ondoren, Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideen aho bateko aldeko botoekin azaroaren 25eko emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguneko adierazpen instituzionala onartzea erabaki du.

6.- Abenduak 3, Euskararen eguneko adierazpen instituzionala.

“Erakunde adierazpen proposamena:

Hori horrela, Zestoako Udal erakunde honek, honako konpromisoak hartzen dituela adierazten du 2019ko Euskararen Nazioarteko Egun honetan:

1. Erakundeak lehentasunez erabiltzea euskara, bere jakinarazpen eta gainerako erakunde, hornitzaile zein elkarrekin harremanetan.
2. Gure administrazio publikoaren kontratuetan hizkuntza irizpideak zehaztea eta ezartzea.
3. Administrazio publikoen kontratazioetan ziurtagiriak —Bikain eta Bai Euskarari, besteak beste— bateratu eta indartzeko neurriak hartzea.
4. Euskararen erabilera sustatzen duten hainbat tresna sustatzea. Hala nola, softwarea eta oinarritzko aplikazioak euskaraz, astialdirako IKT produktuak, .eus domeinua eta euskararen erabilera interneten.
5. UEMA babestu, indartu eta zabaltzea.
6. Urte askotako hitzarmenak sustatzea euskarazko tokiko komunikabideen jasangarritasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko.
7. Euskararen erabilera eta presentzia bermatzea erabiltzen ditugun komunikabide guztietan.
8. Kirol arloa euskalduntzeko bidean lan egitea, federazioarekin eta tokiko klubekin elkarlanean.
9. Gazteentzako euskarazko aisialdi zerbitzuak sustatu eta zabaltzea.



ZESTOAKO UDALA

10. Familia eremuetan euskararen erabilera eta transmisioa sustatzea.
11. Migratzaileentzako laguntza ildoak aktibatzea, euskara ikasteko eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera izan dezaten.
12. Enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak aktibatzea, euskara laneko eta zerbitzuetako hizkuntza izan dadin.
13. Jarduera arau emailea garatzea, enpresetan euskara erabiltzeko planak indarrean jartzeko.
14. Eremu guztietako eragileekin —hau da, enpresa elkarteekin, sindikatuekin, gremioekin, merkataritza ganberekin eta beste hainbat erakunderekin— akordioak lortzea, euskararen normalizazioa bultzatzeko lana har dezaten.
15. Herriko gizarte eragile eta euskalgintzarekin batera elkarlanari eustea.

Alkateak gehitu du Zestoako Udalak 1994an onartu zuen euskararen ordenantzan jasotzen direla nagusiki irakurritako puntuak.

Ondoren, Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideen aho bateko aldeko botoekin euskararen egunari dagokion adierazpen instituzionala onartzea erabaki du.

7.- Agote poligonoko lagapena.

R.A.k hartu du hitza eta adierazi du Agoteko industri-gunearen garapenean, urbanizazio lanak amaituta daudela eta udalak jasotzea falta dela.

Gehitu du, urbanizazio lanak egin direnean San Lorenterako bidearen trazatua aldatu egin zen eta ondorioz, birpartzelazioan udalak jasotako lur sailez gain bi partzela udal jabegora pasatzea beharrezkoa dela. Horretarako, birpartzelazioa aldatu ordez zuzeneko lurren lagapen bat jasoko du udalak.

Hain zuzen, Z.S.L. enpresak doako lagapen bat egingo du, 483 m²koa lur sail bat eta 452,3 m²koa bestea.

Ondoren, Alkateak proposamena bozkatzea proposatu du. Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakide guztien aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

LEHENA.- Z.S.L enpresaren Agote eremuko 483 m² eta 452,3 m²ko lur zatien lagapenak onartzea.

BIGARRENA.- Alkatea ahalbidetzea Z.S.L. enpresaren Agote eremuko 483 m² eta 452,3 m²ko lur zatien lagapenak onartzeko beharrezko dokumentuak sinatzeko.

8.- Zestoa eta Arbizu – Bir Zeit eta Marda. Euskal Herria eta Palestina.

Alkateak adierazi du Zestoa bi herrirekin senidetua dagoela, Saharako herri batekin eta Palestinako Bir Zeit-ekin. Bir Zeit-ekin 2009an senidetu zela gehitu du eta hamar urte igaro direla. Arbizu, berriz, 2005an Mardarekin senidetu zela adierazi du.

Sakanan antolatu den ekitaldian Arbizu eta Zestoako alkateek irakurriko duten adierazpena irakurri du jarrian.



ZESTOAKO UDALA

"Zestoako eta Arbizuko herrien ordezkari garen alkateek, gaurko egunarekin azaroak 29, Palestinaren aldeko nazioarteko elkartasun egunean, lehenik eta behin besarkada beroa helarazi nahi diogu herri palestinar guziari eta bereziki, gurekin, Zestoa eta Arbizurekin senideturik eta herri kideturik dauden Palestinako Marda eta Bir Zeit-eko herritarrei.

2005ean Arbizu Mardarekin eta 2009an Zestoa Bir Zeitekin senidetu ginen, beren buruaren jabe izan nahi duten bi herriren arteko elkartasuna adierazi eta herri bezala dagozkigun eskubideak borrokatzen jarraitzeko, oinarrizko hiru helburu ardatz harturik: lurra, justizia eta askatasuna.

Urte guzti hauetan, Israelgo Estatuak palestinar herriaren aurka ezarri duen apartheid-ak okerrera baino ez du egin. Lurren lapurretak etengabe handitzen eta bizkortzen doaz, israeldarren legez kanpoko kokaguneak egunetik egunera ugaritzen doaz eta Israelgo Estatuaren inpunitateak ukigabe jarraitzen du.

Egoera lazgarri honen aurrean, herri palestinarrek 2005ean nazioarteko komunitateari Palestinaren okupazioarekin aberasten ari diren Israelgo Estatu eta nazioarteko enpresen aurkako neurriak hartzea eskatu zuen, harik eta palestinarren giza eskubideak errespetatu arte. Horretarako okupazioarekin amaitu, eskubideen berdintasuna ziurtatu eta palestinar errefuxiatuen itzulera baimentzea helburu hartuta.

Gaur egun ehunka enpresa, instituzio, unibertsitate, elkarte, sindikatu, alderdi politiko eta pertsona entzutetsu dago mundu mailan kanpaina honekin bat egin duena. 2012. urtetik aurrera, Euskal Herriko hainbat udalek bat egin genuen BDZ (boikota, desinbertsioa eta zigorra) kanpainarekin, herri palestinarren giza eskubideak eta nazioarteko legedia urratzen dituzten instituzio eta enpresekin harremanak etetea eskatuz.

Gauzak horrela, Zestoa eta Arbizuko udalek BDZ kanpainaren aldeko jarrera berresten dugu eta bidenabar, Euskal Herriko udalei, unibertsitateei, instituzio publiko nahiz pribatuei, sindikatu, alderdi eta mota guztietako elkarteei, BDZ kanpainarekin bat egin dezatela eskatzen diegu.

Horregatik, Goierriko CAF enpresari dei berezia egiten diogu Okupaturiko Ekialdeko Jerusalem eta Zisjordaniako legez kanpoko koloniak lotuko dituen tranbia eraikitzeko eskuratu duen kontratua bertan behera utz dezan. Nazioarteko legedia urratzen duen legez kanpoko proiektu honek CAF enpresa apur bat gehiago aberastu lezake, baina zalantzarik gabe, elkartasun ikuspegi batetik herri bezala pobreagoak izango gara."

Alkateak irakurketa amaitu ondoren Garikoitzek adierazi du bera edukiarekiko abstenitu egingo litzatekeela.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko zortziak eta hogeiei eta hamalau direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

O. e.
ALKATEAK,



ZESTOAKO UDALA



ZESTOAKO UDALA